

Artea

Pastu, hustu eta parti!

Lingerie basqueko mantel hori-urdinaren gainean baso bat hustuta, ardo arrastoa ipurdian. Eta azpian papertxo bat: Segidan helduko naiz. Koadro beteko ohol ilunaren gainean basoa berriro ere, berdin, erabilia, ardo arrastoa soilik barrenean: *Pastu, hustu eta parti!*, horixe Kepa Arizmendi Bereauk margolanari jarri zion izena. *Pastu eta parti*, etxe askotatik pasa denaren presaz, toki finkorik gabe. Hustutako edalontzia diosalaren seinale. Presentzia-ausentzia jokoa. Eta metafora, bizitza, baso bat ardo bezala, hustutzearena. “Hori da testamentua bezala”.

BAIONA ZAHARREKO etxe argitsu hartan –katedraleko kanpaiak jo eta jo eguerdian, Aste Santua baitzen– paretak koadroz estalita, garai eta estilo ezberdinetakoak, liburu batzuk pilatuta, eta haien gainean benetako edalontzia, margolanetarako modeloa. Eta haren azpian Spinoza, gustuko irakurketa. Azpil batean sagarrak. Horman, ezkerretik eskuinera, erlojuaren orratzen zentzuan, bost koadro sagarrenak. Figurati-boa erabat lehenengoa, poliki-poliki, urratsez urrats, koloreak eta formak sinplifikatuz doaz, bosgarrenaren abstrakzioaraino. “Koadro bakar bat da”. Konstrukzio-dekonstrukzioa, *Pourquoi pas simple?* leloari jarraituz.

Pasilloaren barrenean pintatzen aritzeko txokoa. “Ana Mari-ren pinturak!” tuboa estutu eta paletara zorrozpada ateratzean. Ana Mari Marin, Baztango margolariak bidaliak. Astoaren gainean zeukan koadroari pintzelada batzuk eman eta gero: “Ez al duzu txori bat ikusten?”. Izan ere, abstrakzioan, *Husguneak* pintatzen ari zela, figurak ateratzen zitzaizkion ezarian-ezarian: egurrezko zaldi kulunkari bat, emakumea biluzik etzanda, mandarinak...

Duela hiru urte Baztanen egindako erakusketaren katalogoari heldu diogu bere ibilbidea errebasatzeko. Parisko koadroak: Bois de Boulogne, Montmartre, Champs-Élysées, Carrefour... Bidegurutzean leihoak, asko, denak berdin-berdinak formaz, soilik koloreek ezberdintzen dituztela: “Leiho horien atzean egonen da norbait begira? Edo hutsik izanen dira apartamentuak?”. Hiri handiak sortutako jakinmina, ikusmina.

“To, Donibane Lohizune gauez”, behin, birritan eta hirutan ere pintatua, zeruak eta itsaso-

ELIXABETE GARMENDIA

**Ekainaren 8an partitu zen
Kepa Arizmendi Baionatik,
Baztanen basoerdi bat hartzeko
zoririk izan gabe**



ak bat egiten duten ostertzean, soilik argi ilada bat, dir-dir eginez. “Beti gauza bera egiten dut, bat pintatu eta gero saiatzen naiz berriro...”.

Sorpresaz harrapatu du *Arkupeaken* erreproduzioak. “Elizondoko arkupeak. Hor badira bi ostatu”. Han, barrenean, norbait arkupea zeharkatzen. Honantzago bi lagun ageri dira solasean. Agian besarkada elkarri eman berri? “Parisen pintatua, nostalgiaz edo...”. Herrimina dario arkupeen aurrean. Hogei urte Baztandik alde egin zuela. Interneten mugalari gisa ageri da bere izena. Izana, *mugatarra* aitortzen du. Joxe Mari Apezetxeak, maisu izan zuen Erratzuko margolariak, esaten omen zion: “Ad limitum” ibiltzen zela beti, “eta bai, pinturan eta bestela ere bai” dio, irribarrea bihurri. Baina ez gara horretaz sobera mintzatuko, bai ordea mendiko zeharkaldiez –gogoko ditu oso–, eta luzaroan zain egon beharraz, eta orduan nola oiha-nak meditazioarako aukera eman izan dion.

Pintatzeko txokoan, hormaren kontra bermatuta, koadro luze bat: gizon baten erretratoa, egonean, begiak itxita, hankapean ardo botila, basoa, mandarinak...

– Buruan kontrabandistak edo gaueko lana-
edo egiten dutenak nituen. Hortxe pausatu da,
zuhaitzaren babesean, erdi lo dago, ametsetan...

– Nekatuta dago.

– Pakean dago.

Pastu, hustu eta parti. Ekainaren 8an partitu zen Kepa Arizmendi Baionatik, Baztanen basoerdi bat hartzeko zoririk izan gabe. ■